ANIMALIEN JABETZA ETA BABESA ETA ANIMALIA ARRISKUGARRIEN ARAUBIDE JURIDIKOA ARAUPETZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA

ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA TENENCIA Y PROTECCIÓN DE ANIMALES Y DE RÉGIMEN JURÍDICO DE ANIMALES POTENCIALMENTE PELIGROSOS

## I. IZENBURUA
## XEDEA ETA EZARPEN-EREMUA

### 1. artikulua.- Xedea.

1. Udalak jarraian aipatuko diren xedapenetan eman zaizkion eskumenak erabili ditu ordenantza hau egiteko: Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Legea; abenduaren 23ko 50/1999 Legea, Animalia Arriskugarrien Jabetzaren Araubide Juridikoari buruzkoa; Euskal Autonomia Erkidegoaren urriaren 29ko 6/1993 Legea, Animalien Babesari buruzkoa; apirilaren 4ko 66/2000 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzea araupetu duena; eta horiek garatu dituzten xedapenak eta aplikatu beharreko xedapen orokorrak.

2. Ordenantza honen helburua hauxe da:

a) Soraluzeko udal mugartean era guztietako animaliak babesteari, edukitzeari, jendaurrean erakusteari eta merkaturatzeari buruzko arauak ematea, animalien eta pertsonen elkarbizitza egokia, ingurumenaren garbitasuna, pertsonen osasun eta lasaitasuna eta ondasunen segurtasuna ziurtatzeko. Soraluzeko udalerrian dauden animalia guztiak sartuko dira ezarpen-eremuan, bertako erroldan edo erregistroan egon edo ez, eta euren jabe edo edukitzaileak bertan nahiz beste leku batean bizi.

## TÍTULO I
## OBJETO Y ÁMBITO DE APLICACIÓN

### Artículo 1.- Objeto.

1. La presente Ordenanza se dicta en virtud de las competencias atribuidas al Ayuntamiento por la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local, la Ley 50/1999, de 23 de diciembre, de Régimen Jurídico de la Tenencia de Animales potencialmente peligrosos, la Ley de la Comunidad Autónoma del País Vasco 6/1993, de 29 de octubre, de Protección de los Animales, Decreto 66/2000, de 4 de abril, del Gobierno Vasco, por el que se regula la tenencia de animales de la especie canina en la Comunidad Autónoma del País Vasco y demás disposiciones de desarrollo de general aplicación.

2. La presente Ordenanza tiene por objeto:

a) Regular la protección, tenencia, exhibición y comercialización de toda clase de animales, así como su protección en el término municipal de Soraluze, con independencia de que se encuentren o no censados o registrados en él y sea cual fuere el lugar de residencia de los dueños/as o poseedores/as, armonizando la convivencia de tales animales y las personas con los posibles riesgos para la sanidad ambiental y la tranquilidad, salud y seguridad de personas y bienes.

b) Animaliak behar bezala zaintzeko gutxienez zer egin behar den zehaztea (tratua, higienea eta zainketa, babesa, garraioa) eta arauak ezartzea animaliak establezimendu espezializatuetan edukitzeko, merkaturatzeko, saltze-ko, eta euren osasuna zaintzeko.

c) Animalia arriskugarriak, batez ere txakurrak, edukitzeko araubide juridikoa ezartzea.

**2. artikulua.- Definizioak.**

Ordenantza hau aplikatzeko ondoko definizioak egin dira:

1. Bizi ahal izateko gizakiaren laguntza behar duten animaliak dira etxeko animaliak.

2. Animalia heziak honako hauek dira: basati eta aske sortu arren gizakiarekin egotera eta hari lagun egitera ohituta daudenak eta, azken batean, bizi ahal izateko bere laguntza behar dutenak.

3. Basa-animalia gatibuak hauek dira: basati jaio arren gatibu daudenak, baina hezteko ez direnak.

4. Animalia arriskugarritzat honakoak joko dira:

   a) Basa-animaliak eta animalia heziak, baldin eta jendeari lagun egiteko erabiltzen badira eta, euren agresibitatea alde batera utzita, pertsonak edo beste animalia batzuk zauritu eta hiltzeko eta gauzei kalte egiteko

b) Establecer las atenciones mínimas que han de recibir los animales en cuanto a trato, higiene y cuidado, protección y transporte y establecer las normas sobre su estancia en establecimientos especializados, atención sanitaria, comercialización y venta.

c) Determinar el régimen jurídico de la tenencia de animales potencialmente peligrosos, singularmente de la especie canina.

**Artículo 2.- Definiciones.**

A los efectos de la aplicación de la presente Ordenanza se establecen las siguientes definiciones:

1. Son animales domésticos aquellos que dependen del ser humano para su subsistencia.

2. Son animales domesticados aquellos que, habiendo nacido silvestres y libres, son acostumbrados a la vista y compañía del ser humano, dependiendo definitivamente de éste para su subsistencia.

3. Son animales salvajes en cautividad aquellos que, habiendo nacido silvestres, son sometidos a condiciones de cautiverio, pero no de aprendizaje para su domesticación.

4. Se consideran animales potencial-mente peligrosos:

   a) Todos los animales domesticados o salvajes que, siendo utilizados como animales de compañía y con independencia de su agresividad, pertenezcan a especies o razas que tengan capacidad de causar la muerte o lesiones a personas o a

gaitasuna daukaten espezie edo arrazetakoak badira.

b) Udal organo eskudunek beren beregi arriskugarritzat katalogatzen dituzten txakurrak. Horretarako irizpide objektiboak erabiliko dira, esate baterako, arrazaren ezaugarriak, izaera oldarkorra, masailaren tamaina edota indarra, inork jarritako salaketetatik txakurra arriskutsua dela ondorioztatu ahal izatea, edo animaliak jendeari eta gauzei kalte eragiteko gai dela agerian jartzen duen beste edozein inguruabar.

c) Beti ere, animalia arriskugarritzat joko dira eraso eta defentsarako trebatuta dauden txakurrak, baita Euskal Autonomia Erkidegoak berariaz izendatu behar dituen arrazetako txakurrak ere. *(ikus lehenengo xedapen iragankorra).*

**3. artikulua.- Salbuespenak.**

Honako arlo hauek ez dira sartzen Ordenantza honen ezarpen-eremuan, euren arautegi bereziak dituztelako:

a) Ehiza.
b) Arrantza.
c) Animalila basatiak euren berezko ingurunean babestu eta artatzea.
d) Zezenketak.
e) Animaliak saiakuntzak egiteko eta zientziaren beste helburu batzuetarako erabiltzea.

**II. IZENBURUA**
**ANIMALIA-MOTA GUZTIEI**

otros animales y daños a las cosas.

b) Todo animal de la especie canina que, con carácter individual, haya sido catalogado como tal por los órganos municipales competentes, atendiendo a criterios objetivos tales como una determinada tipología racial, manifestar un carácter agresivo, tamaño y/o potencia de mandíbula, haber sido objeto de denuncias por parte de particulares de las que racionalmente se pueda inferir la peligrosidad del animal, o cualquier otra circunstancia objetiva que ponga de manifiesto la capacidad del animal para causar daños a las personas o las cosas.

c) En todo caso, se considera animal potencialmente peligroso a los de la especie canina que hayan sido adiestrados para el ataque y defensa así como los perros que pertenezcan a las razas que defina al efecto la Comunidad Autónoma del País Vasco *(ver Disposición Transitoria Primera).*

**Artículo 3.- Exclusiones.**

Quedan excluidos del ámbito de aplicación de esta Ordenanza y se regirán por su normativa específica:

a) La caza.
b) La pesca.
c) La protección y conservación de la fauna silvestre en su medio natural.
d) Los toros.
e) La utilización de animales para experimentación y otros fines científicos.

**TÍTULO II**
**DISPOSICIONES COMUNES A**

## BURUZKO XEDAPENAK

## I. KAPITULUA
## XEDAPEN OROKORRAK

**4. artikulua.- Etxeko animaliak, animalia heziak eta basa-animaliak.**

Etxeko animaliak, animalia heziak edo basa-animalia gatibuak hiriko etxebizitza eta lokaletan eduki ahal izateko, baldintza hauek bete behar dira: animaliei bizitzeko leku egokia atondu eta bizimodu egokia eman behar zaie, eta ez dira eragotzi behar hiritarren higienea, segurtasuna eta lasaitasuna.

**5. artikulua.- Ukuilu, haztegi eta eskortetako animaliak.**

1. Debekaturik dago txakurrak luzaroan edo estabulazio-erregimenean edukitzea balkoietan, garajeetan, pabiloietan, sotoetan, lonjetan, azoteetan, lorategietan edo beste edozein lekutan, baldin eta txakurren usainak, uluak edo zaunkak auzokoentzat edo oinezkoentzat gogaikarriak badira.

2. Debekaturik dago etxeko animaliak estabulazioko edo erdi-estabulazioko erregimenean edukitzea herriko parke eta lorategietan, herri erabilerako gainerako lekuetan, talde-eraikinetako gune komunetan eta hirilurretan.

**6. artikulua.- Animaliak etxebizitza pribatuetan.**

1.- Oro har, etxebizitza pribatuetan etxeko animaliak eta animalia heziak eduki daitezke, badin eta animalien bizilekua, instalazioak eta animalien kopurua egokiak badira higiene eta

## TODA CLASE DE ANIMALES

## CAPÍTULO I
## DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 4.- Animales domésticos, domesticados y salvajes.**

La tenencia de animales domésticos, domesticados o en su caso salvajes en cautividad en viviendas o locales urbanos queda condicionada a la existencia de circunstancias adecuadas en su alojamiento, así como el mantenimiento de las debidas condiciones de higiene, seguridad y tranquilidad ciudadanas.

**Artículo 5.- Animales estabulados, de cría y corral.**

1. Se prohibe la tenencia habitual o estabulación de perros en balcones, garajes, pabellones, sótanos, lonjas, azoteas, jardines o cualquier otro local, cuando éstos ocasionen molestias objetivas por sus olores, aullidos o ladridos a los vecinos o transeúntes.

2. Se prohibe la presencia habitual en régimen de estabulación o semiestabulación de animales domésticos en parques y jardines públicos, demás bienes de uso público, elementos comunes de edificios colectivos y terrenos calificados como urbanos.

**Artículo 6.- Animales en domicilios particulares.**

1.- Con carácter general se autoriza la tenencia de animales domésticos y domesticados en los domicilios particulares, siempre que las circunstan-cias de alojamiento, la adecuación de las

osasunaren aldetik, eta arrisku edo eragozpen objektiborik sortzen ez bada auzokoentzat eta gainerako herritarrentzat edo etxebizitzan dauden animalientzat eta gainerako animalientzat.

instalaciones y el número de animales lo permitan, tanto en el aspecto higiénico - sanitario como la no existencia de situación alguna de peligro o de incomodidad objetivas para los/as vecinos/as y para otras personas en general o para el propio animal u otros animales.

2.- Etxebizitza anitzeko eraikinetan, etxebizitza edo lokal batean txakur bi baino gehiago edukitzea auzokoentzat gogaikarria dela uste izango da, jabeak kontrako frogarik aurkeztu ezik. Inork salaketa jarriz gero, Udal Administrazioak espedientea hasiko du, salatutako etxebizitza edo lokalean txakurren kopurua mugatzeko.

2.- Se estimará que se producen molestias al vecindario, la tenencia en un piso o local sito en edificio colectivo de viviendas de más de dos perros, salvo prueba en contrario que aporte el propietario. De mediar denuncia, la Administración municipal incoará expediente encaminado a limitar el número de perros permitido en el piso o local.

**7. artikulua.- Basa-animaliak edo piztiak.**

Natur parkeetan, zoologikoetan eta antzeko lekuetan bizi ohi diren basa-animaliak edo piztiak leku horietatik kanpo eduki ahal izateko, eskudun organoaren baimena jaso beharko da, eta jabeak erantzukizuna izango du animaliok auzokoei arrisku edo eragozpenik txikiena ere sortzen badiete. Debekaturik dago horrelako animaliak aske uztea kanpoan edo jendea sar daitekeen lokaletan, eta ordenantza honetan ezarritako gainerako betebeharrak ere bete beharko dira.

**Artículo 7.- Animales salvajes o feroces.**

La tenencia por particulares de animales salvajes o feroces fuera de los parques, zoológicos o áreas destinadas al efecto, requerirá autorización expresa del órgano competente, responsabilizándose el propietario de la total ausencia de peligros y molestias al vecindario. A tal efecto, se prohibe dejar sueltos a estos animales en espacios exteriores o locales abiertos al público, sin perjuicio del cumplimiento del resto de obligaciones establecidas en esta Ordenanza.

**8. artikulua.- Debeku orokorrak.**

1. Beren beregi debekaturik dago:

a) Animaliei tratu txarrak ematea, edo arrazoi gabeko oinazea edo kaltea eta larrialdia sortuko dieten tratua ematea.

b) Animaliak kanpoan deslai uztea edo/eta luzaroan toki itxian edukitzea. Jabeak animalia edukitzeari utzi nahi badio, beste jabe bat bilatu behar du, edo,

**Artículo 8.- Prohibiciones generales.**

1. Queda expresamente prohibido:

a) Maltratar a los animales o someterlos a cualquier práctica que les pueda producir sufrimientos o daños y angustia injustificados.

b) Abandonar los animales en espacios exteriores y/o mantenerlos encerrados durante largo tiempo. Los/as propietarios/as que no deseen continuar poseyéndolos

besterik ezean, animaliak babesteko elkarte baten esku utzi behar du, eta Udalaren Osasun Arloa jakitun jarri behar du.

c) Animaliak behar beste ez elikatzea edo higiene eta osasunaren ikuspuntutik egokiak ez diren lekuetan edukitzea.

d) Animaliei mozketak egitea, premiazkoa denean albaitarien kontrolpean egindakoak izan ezik, funtzioak betetzeko beharrezko denean edo arraza batzuentzat aho batez onartutako ezaugarri estetikoak gordetzeko.

e) Animaliei alkohola, drogak edo botikak ematea edo kalte fisikoak edo psikikoak ekarriko dizkien edozein manipulazio artifizial egitea, nahiz eta lehiaketaren bateko emaitzak hobetzeko asmoz izan.

f) Etxeko animaliak berezko duen jokaeraren kontra edo tratu iraingarria ekarriko duen moduan aritzera behartzea.

g) Txakurren eta oilarren borrokak.

h) Animaliak kalean hiltzea, ezinbestekoa denean eta horretarako premia gorria dagoenean izan ezik.

2. Era berean, debekaturik dago:

a) 14 urtetik beherakoei edo gauza ez direnei animaliak saltzea, ematea edo lagatzea, guraso-agintea daukan pertsonaren edo tutoreen baimenik gabe.

deberán buscarles un nuevo/a propietario/a y, en última instancia entregarlo en una Asociación de protección de animales, notificándolo a Sanidad Municipal.

c) No facilitarles la alimentación necesaria para subsistir y/o mantenerlos en instalaciones inadecuadas desde el punto de vista higiénico - sanitario.

d) Practicar mutilaciones, excepto las controladas por veterinarios en caso de necesidad, por exigencia funcional o para mantener las características estéticas generalmente aceptadas para algunas razas concretas.

e) Suministrar a los animales alcohol, drogas o fármacos o practicarles cualquier manipulación artificial que pueda producirles daños físicos o psíquicos, aún cuando sea para aumentar el rendimiento de una competición.

f) Imponerles la realización de comportamientos y aptitudes ajenas e impropias de su condición de animales domésticos o que impliquen trato vejatorio.

g) Las peleas de perros y gallos.

h) Sacrificar animales en la vía pública salvo en los casos de extrema necesidad y fuerza mayor.

2. Queda igualmente prohibida:

a) La venta, donación o cesión de animales a personas menores de 14 años o a personas incapacitadas sin la autorización de quien tengan la patria potestad o custodia.

b) Animaliak kalean saltzea, baimendutako azoka edo merkatuetan izan ezik.

c) Animaliak laborategi edo kliniketarako saltzea administrazioaren kontrolik gabe.

d) Publizitaterako erakargarritzat, saritzat edo ordaintzat animaliak ematea, ordain truke eskualdatzetik sortutako negozio juridikoak izan ezik.

e) Espezie babestuetako animaliak saltzea, edukitzea eta jendaurrean erakustea, espezie babestuei buruzko legeetan ezarritakoa kontuan hartuta.

f) Animaliak antzokietan, dantzale-kuetan, filmaketetan, argazkilari-tzan, grabazioetan edo propagan-da-jarduereetan erabiltzea, animali-ari tratu iraingarria, kaltegarria edo mingarria ematen bazaio.

**9. artikulua.- Jabeen betebehar orokorrak**

1. Animalia bat daukanak garbi eta osasuntsu egon dadin arduratu beharko du, bizitzeko instalazio egokiak atonduko dizkio, jana eta edana emango dio, albaitariarengana eramango du, ariketa fisikoa egiteko aukera emango dio eta beharrizan fisiologiko eta etologikoak aseko dizkio bere espezie eta arrazari dagokion eran.

2. Animalia baten jabeak uste duenean bere animaliak gaitz kutsakorra daukala, albaitariarengana eramango du, azter dezan. Gaitzen bat daukala susmatzen edo egiaztatzen badu, albaitariak eskudun agintariari jakinaraziko dio.

b) La venta ambulante de animales fuera de los mercados o ferias autorizados.

c) La venta de animales a laboratorios o clínicas sin control de la Administración.

d) La donación de animales como reclamo publicitario, premio o recompensa, a excepción de negocios jurídicos derivados de la transacción onerosa de aquellos.

e) La venta de animales pertenecientes a especies protegidas así como su posesión y exhibición en los términos de su legislación específica.

f) La utilización de animales en teatros, salas de fiesta, filmaciones, fotografiado, grabaciones o actividades de propaganda que supongan daño, sufrimiento o degradación del animal.

**Artículo 9.- Obligaciones generales de los propietarios.**

1. El poseedor de un animal deberá mantenerlo en buenas condiciones higiénico - sanitarias, procurándole instalaciones adecuadas para su cobijo, proporcionándole alimentación y bebida, prestándole asistencia veterinaria, dándole la oportunidad de ejercicio físico y atendiéndole de acuerdo con sus necesidades fisiológicas y etológicas en función de su especie y raza.

2. Cuando su tenedor considerara que un animal pudiera padecer una enfermedad contagiosa, lo pondrá en conocimiento de su Veterinario/a quien deberá comunicarlo a continuación a la autoridad competente en el caso de que sospeche o pueda confirmar que se trata

de una zoonosis.

3. Animalia batek inori haginka egiten badio, txakur eta katuen gaineko higiene eta osasun neurriei buruzko 1976ko ekainaren 14ko Aginduan xedatutakoa eta urriaren 29ko 6/93 Legean xedatutakoa beteko da, eta animaliak berrogeialdia egingo du, lege horietan ezarritakoaren arabera.

3. En caso de lesiones de animales mordedores, habrá que estar a lo que disponga la Orden de 14 de junio de 1976, sobre medidas higiénico - sanitarias en perros y gatos, así como la Ley 6/93 de 29 de octubre, debiendo guardar el período de cuarentena según lo establecido en estas leyes.

4. Animali arriskugarrien jabeek erantzukizun zibileko asegurua egin beharko dute, animaliek egin ditzaketen gaitz-kalteak ordaintzeko. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak arau bidez zehaztu behar du aseguruaren gutxieneko zenbatekoa. *(Ikus bigarren xedapen iragankorra).*

4. Los propietarios de animales de razas potencialmente peligrosas, tendrán la obligación de constituir un seguro de responsabilidad civil que cubra los daños y perjuicios que pudieran provocar dichos animales a terceros en la cuantía mínima que reglamentariamente se determine por la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco. *(Ver Disposición Transitoria Segunda).*

5. Txakurren osasun egoera kontrolpean egon dadin, txakurren jabeek urtero albaitariarengana eramango dituzte eta albaitariak azterketa klinikoa egingo die. Azterketa horretan animaliaren osasun egoera orokorra eta beraren identifikazioa aztertuko dira.

5. Al objeto de poder supervisar el estado sanitario de los animales de la especie canina, los propietarios de los mismos deberán someterlos, con una periodicidad anual, a un examen clínico de control veterinario que abarcará los aspectos relativos al estado sanitario general del animal y su identificación.

**10. artikulua.- Betebeharrak ez betetzea edo debekuak urratzea.**

**Artículo 10.- Incumplimiento de las obligaciones o quebranto de las prohibiciones.**

Jabeek ez badituzte 9 eta 10. artikuluetan ezarritako betebeharrak betetzen, modu larrian edo behin eta berriz, edo higiene eta osasun arrazoiak direla-eta, albaitaritza zerbitzu egokiak txostena egin ondoren animaliak toki egoki batean sartzea erabaki ahal izango du Alkateak, jabeen kontura; era berean, behar den beste edozein neurri ere har dezake, ezarri daitezkeen zigorrez gain.

En caso de grave o persistente incumplimiento de las prohibiciones establecidas en los artículos 9 y 10 así como por motivos higiénico sanitarios, el Alcalde, previo informe del Servicio Veterinario pertinente, podrá disponer el traslado de los animales a un establecimiento adecuado con cargo a los propietarios y adoptar cualquier otra medida adicional necesaria sin perjuicio de las sanciones que pudieran derivarse.

## II. KAPITULUA

## CAPÍTULO II

## ANIMALIEN IDENTIFIKAZIOA ETA ERROLDA

**11. artikulua.- Animaliak identifikatu eta erroldatu beharra.**

1. Txakurren jabeek, eta aurrerantzean adieraz litezkeen beste animalia-moten jabeek, euren animaliak identifikatu eta erroldatu beharko dituzte, animalia jaio edo erosi eta handik hilabetera. Gainera, Txakurren Osasun-Kartila eduki beharko dute.

2. Identifikaziorako, “transponder” izeneko tresna mikroelektronikoa sartuko zaio animaliari, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailaren 1993ko maiatzaren 25eko Aginduak, txakurren identifikazioari buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

3. Animaliaren heriotza, galera, eskualdaketa edo beste gertaera batzuk direla eta, animalia erroldatik kendu beharra badago, jabeek Udal Administrazioari 10 eguneko epean jakinaraziko diote, baja eragin duen gertaeraren egunetik zenbatuta. Osasun-kartila eta, salaketarik egonez gero, salaketaren kopia aurkeztu behar dituzte.

4. Jabearen egoitza-aldaketak, animaliaren jabetzaren transferentziak eta erantzukizun zibileko aseguru-etxearen aldaketak ere 10 eguneko epean jakinarazi behar dira.

**12. artikulua.- Txakurren errolda.**

1. Udalak txakurren errolda orokorra edukiko du eta errolda hori lotuta egongo da Gipuzkoako Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzuan dagoen Animalien Identifikaziorako Gipuzkoako Lurralde Erregistroarekin.

## DE LA IDENTIFICACIÓN Y CENSO DE ANIMALES

**Artículo 11.- Obligación de identificación y censo.**

1. Los propietarios o poseedores de perros y los de aquellos otros animales que un futuro puedan determinarse, están obligados a identificarlos y censarlos a partir del mes de su nacimiento o adquisición. Además deberán estar en posesión de la Cartilla Sanitaria Canina.

2. La identificación se hará mediante un implante microelectrónico denominado “transponder”, según lo dispuesto por la Orden del Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco de 25 de mayo de 1993, sobre Identificación de Perros.

3. La baja de los animales, por su muerte, desaparición, traslado u otros, será comunicada por los/as responsables del animal, a la Administración municipal, en el plazo de 10 días a contar desde que se produjese, acompañando a tal efecto la cartilla sanitaria y copia de la denuncia si la hubiera.

4. En el mismo plazo de 10 días se comunicarán los cambios de domicilio, transferencia de propiedad o cambio de compañía aseguradora de la responsabilidad civil.

**Artículo 12.- Censo canino.**

1. El Ayuntamiento dispondrá de un censo canino general conectado con el correspondiente al Registro Territorial de Gipuzkoa de Identificación Animal, en el Servicio de Ganadería de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2. Erroldan datu hauek jasoko dira:

a) Animaliaren datuak:

- Esleituta eta gorputzean ezarrita daukan identifikazio-kodea.
- Espeziea.
- Arraza.
- Sexua.
- Ilearen kolorea.
- Jaioteguna.
- Ohiko egoitza.
- Identifikaziorako erabili ohi diren beste metodo batzuk.

b) Jabearen datuak:

- Izena eta deiturak.
- NANa.
- Ohiko egoitza.
- Telefonoa.

c) Beste datu batzuk:

- Animaliaren identifikazio ofiziala egin duen albaitariaren datuak.

- Identifikazio eguna.
- Erantzukizun zibilaren asegurua egin duen etxea eta polizaren zenbakia.

3. Animalia Arriskugarrien Erregistro berezia ere egingo da. Bertan, aurreko atalean adierazitako datu berberak jarriko dira, eta horrez gainera, agertarazi egingo da ea animalia arriskugarria jendearekin laguntza-animalia gisa biziko den edo lan bereziak egiteko erabiliko den, zainketa edo babes lanak edo bestelakoak.

2. Dicho censo contendrá los siguientes datos:

a) Con relación al animal:

- Código identificador asignado e implantado.
- Especie.
- Raza.
- Sexo.
- Capa.
- Fecha de nacimiento.
- Domicilio habitual.
- Otros métodos identificadores utilizados habitualmente.

b) En relación al propietario del animal:

- Nombre y apellidos.
- D.N.I.
- Domicilio habitual.
- Teléfono.

c) Otros datos:

- Datos identificativos del veterinario oficial que proceda a la identificación oficial del animal.
- Fecha de identificación.
- Compañía aseguradora de la responsabilidad civil y número de póliza.

3. Adicionalmente, existirá un Registro especial de Animales Potencialmente Peligrosos en el que, además de las circunstancias indicadas en el apartado anterior, se especificará si dicho animal está destinado a convivir con los seres humanos o si por el contrario tiene finalidades distintas como la guarda, protección u otra que se indique.

4. Udalak zainduko ditu datu-baseak, eta datuak isilpean gorde beharko ditu.

**13. artikulua.- Identifikazioa eta osasun-kartila egiteko gastuak.**

Animalia identifikatzeko eta Txakurren Osasun Kartila egiteko zerbitzua jabearen pentzutan ordainduko da.

## III. KAPITULUA
## ANIMALIEN JABETZA ETA ZIRKULAZIOA

**14. artikulua.- Txakurren zirkulazioari buruzko arau orokorrak.**

1. Herriko bide eta guneetan, talde-eraikinetako elementu komunetan eta jendea dabilen gainerako lekuetan, txakurrak lepoko eta uhalarekin lotuta ibiliko dira.

2. Animalia arriskugarritzat sailkatuta dauden txakurrei muturrekoa jarri behar zaie herri-ingurunean ibiltzeko.

**15. artikulua.- Laguntza-animaliak sartzea debekatuta dagoen lekuak.**

1. Debekaturik dago leku hauetara animaliak sartzea:

a) Elikagaik egiteko, saltzeko, biltzeko, garraiatzeko, manipulatzeko edo saltzeko lekuetara.

b) Jendaurreko kirol edo kultura ekitaldiak eta jolas-jarduerak egiten diren lokaletara,

4. El Ayuntamiento se encargará del mantenimiento de las bases de datos y se responsabilizará de la confidencialidad de los mismos.

**Artículo 13.- Gastos de identificación y confección de la Cartilla Sanitaria.**

El importe de los servicios de identificación y confección de la Cartilla Sanitaria Canina será por cuenta y a cargo del/la propietario/a.

## CAPÍTULO III
## DE LA TENENCIA Y CIRCULACIÓN DE ANIMALES

**Artículo 14.- Normas generales de circulación de especies caninas.**

1. Los perros irán conducidos mediante correa y collar en las vías y espacios públicos así como en los elementos comunes de los edificios colectivos u otros lugares de tránsito de personas.

2. Deberán circular con bozal, en el entorno urbano, todos aquellos clasificados como animales peligrosos.

**Artículo 15.- Prohibiciones de acceso a animales de compañía.**

1. No se permitirá la entrada de animales en los siguientes lugares:

a) Locales destinados a la elaboración, almacenamiento, transporte, manipulación o venta de productos alimenticios de cualquier clase.

b) Locales de espectáculos públicos, deportivos, culturales o recreativos, así como en las

igerileku publikoetara eta osasun-etxeetara, salbu eta animalien lehiaketak edo animaliak azaltzen diren ikuskizunak daudenean.

c) Ikastegietara, ez badira prestakuntza-prozesuetan erabiltzen, ikastegiko arduradun edo zuzendariaren ardurapean.

2. Establezimendu horien titularrek animaliak sartzeko debekuaz ohartarazten duten seinaleak jarri behar dituzte ondo ikusten diren tokietan.

**16. artikulua.- Animaliak establezimendu publikoetara sartzea.**

1. Ostalaritzako establezimendu publikoetan, hotel, apopilo-etxe, jatetxe, taberna, kafetegi eta abarrekoetan, jabeek animaliak sartzea eta barruan egotea debekatu ahal izango dute, egoki baderitzote. Beti ere, establezimendu horietara sartzen diren animaliek arauzko identifikazioa eduki behar dute eta uhalaz lotuta ibili behar dira, eta muturrekoa jarrita, animalia arriskugarriak badira, eta ez dira sartuko gaixorik edo zikin dauden animaliak.

2. Laguntza-animaliak inoiz ez dira sartuko janari-edariak gertatu eta manipulatzen diren guneetan.

**17. artikulua.- Animaliak establezimendu pribatuetara sartzea.**

Taldeek erabiltzen dituzten leku pribatuetan, hala nola, kultur eta jolas elkarteen egoitzetan, etxebizitza-eraikinetako gune komunetan eta antzeko

piscinas públicas y centros sanitarios, salvo en los certámenes, concursos de animales y espectáculos en los que éstos sean parte fundamental.

c) Dependencias de centros educativos, siempre que dichos animales no sean utilizados en los procesos de formación que se lleven a cabo y bajo la responsabilidad del director o encargado del centro.

2. Los titulares de los citados establecimientos deberán colocar en lugar visible señales indicativas de esta protección.

**Artículo 16.- Acceso a establecimientos de uso público.**

1. Los dueños de establecimientos públicos de hostelería, tales como hoteles, pensiones, restaurantes, bares, cafeterías y similares, podrán prohibir a su criterio, la entrada y permanencia de animales. En cualquier caso, exigirán que los animales lleven la correspondiente identificación y vayan sujetos con correa, provistos de bozal si se trata de animales potencialmente peligrosos y siempre que no presenten síntomas de enfermedad o falta de aseo.

2. En ningún caso los animales de compañía tendrán acceso a las zonas destinadas a la elaboración y manipulación de alimentos.

**Artículo 17.- Acceso a establecimientos de uso restringido.**

El acceso y permanencia de los animales en lugares comunitarios privados, tales como sociedades culturales, recreativas, zonas de uso

lekuetan, animaliak sartzeko eta egoteko arauak dena-delako erakunde pribatuak ezarriko ditu. Talde-eraikinetako gune komunetan, beti ere, 14. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

**18. artikulua.- Igogailuen erabilera.**

Animaliekin doazenek eta beste pertsona batzuek igogailua batera erabili behar izatea suertatzen denean, animaliekin doazenek itxaron egin beharko dute, besteek igogailura animaliekin sartu nahi ez badute.

**19. artikulua.- Animalien garraioa.**

1. Animaliak leku batetik bestera eramaten direnean, leku nahikoa izan behar dute. Garraiabideak edo enbalajeak homologaturik egongo dira, animaliak estalpean eta kanpoko giroaren aldaketa handietatik babesturik doazela ziurtatzeko, eta enbalajeetan oharren bat ipini behar da barruan animalia biziak daudela ohartarazteko. Animalien lekualdaketetan beharrezko segurtasun-neurriak jarriko dira.

2. Bidean animaliei jaramon egingo zaie eta behar denean jaten eta edaten emango zaie.

3. Animaliak garraiatzeko lekua higiene eta osasun egoera onean eduki beharko da, ondo desinfektatu eta intsektugabeturik.

**20. artikulua.- Itsu-txakurrak.**

común de comunidades de vecinos, etc., estará sujeto a las normas que rijan dichas entidades, debiendo observarse, en todo caso, lo dispuesto en el artículo 14 en las referidas zonas de uso común de los edificios colectivos.

**Artículo 18.- Uso de ascensores.**

El uso de ascensores por personas que vayan acompañadas de animales, en las circunstancias en que se concurra con otras personas, se hará de manera que no coincidan en la utilización del aparato, cuando éstos últimos así lo deseen.

**Artículo 19.- Transporte de animales.**

1. Los animales deberán disponer de espacio suficiente si se les traslada de un lugar a otro. Los medios de transporte o los embalajes deberán estar homologados y ser concebidos para proteger a los animales de la intemperie y de las diferencias climatológicas acusadas, debiendo llevar estos embalajes la indicación de la presencia de animales vivos. Su traslado se hará con las medidas de seguridad necesarias.

2. Durante el transporte los animales serán observados y recibirán una alimentación apropiada a intervalos convenientes.

3. El habitáculo donde se transporten los animales deberá mantener unas buenas condiciones higiénico – sanitarias, debiendo estar debidamente desinsectado y desinfectado.

**Artículo 20.- Perros lazarillos.**

1. Itsu-txakurrak, euren eginkizuna betetzen ari direnean, eta osasuntsu eta garbi egonez gero, salbuetsita egongo dira aurreko debekuetatik. Beti ere, itsu-txakurra gaixorik, oldarkor, zikin dagoenean, edo pertsonen osasunerako arriskugarri izan daitekeenean, ezingo da sartu aurreko paragrafoan aipatutako tokietan.

2. Itsu-txakurrekin dabiltzan ikusmen urrikoek garraiabide publikoak txakurrekin batera erabili ahal izango dituzte.

1. Los perros lazarillos, cuando actúen como tales y reúnan las condiciones sanitarias adecuadas, quedan exentos de las prohibiciones anteriores, siempre y cuando dichos perros no presenten signos de enfermedad, agresividad, falta de aseo o puedan generar riesgo para la salud de las personas.

2. Las personas discapacitadas que vayan asistidas por perros lazarillos tendrán acceso libre a los medios de transporte públicos.

**21. artikulua.- Txakurren gorozkiak.**

1. Debekatuta dago txakurrek parke, lorategi publiko, umeen jolasleku, kale eta, oro har, jendea dabilen lekuetan kaka egitea.

2. Txakurrekin doazen pertsonak aurreko araua bete dadin arduratuko dira; horretarako, txakurrak kaka egiteko instalazio berezietara eramango dituzte, edo galtzadara, espaloi-ertzaren ondora, estoldako isur-zulotik ahalik eta hurbilenera.

3. Txakurrak espaloian edo oinezkoentzako bideren batean kaka egiten badu, baita galtzadan espaloi-ertzaren ondoan egiten duenean ere, txakurra daramanak garbitu beharko du zikindutako lekua. Gorozkiak plastikozko boltsa batean sartu, boltsa itxi eta kaleko paperontzira bota behar du. Txakurra daraman pertsonaren ordez, jabeari egotziko zaio erantzukizuna, eta bai zehapena jarri ere, bidezkoa izanez gero. Udal agintaritzaren agenteek txakurraren kaka kentzeko agindu ahal izango diote txakurraren jabeari edo txakurra daraman pertsonari.

**Artículo 21.- Depósito de excrementos.**

1. Queda prohibido que los perros depositen sus deyecciones en parques, jardines públicos, parques infantiles o vías públicas o espacios públicos.

2. Las personas responsables de su conducción procurarán el cumplimiento del apartado anterior, debiendo conducirlos a instalaciones habilitadas al efecto o a la calzada junto al bordillo y lo más próximo posible al sumidero del alcantarillado.

3. En el supuesto de deyección en la acera o cualquier otro lugar peatonal, incluso en la calzada junto al bordillo, el responsable de la conducción del perro queda obligado a la limpieza del espacio utilizado, debiendo introducir las deyecciones en bolsas de plástico cerradas y depositarlas en papeleras ubicadas en la vía pública. Subsidiariamente responderá el/la propietario/a del animal, así como de las sanciones oportunas. Los agentes de la autoridad municipal podrán requerir al/la propietario/a o persona que conduzca el perro, para que proceda a retirar las deposiciones del animal.

**22. artikulua.- Erantzukizuna.**

Animaliaren jabea animaliak eragiten dituen gaitz, kalte eta eragozpenen erantzulea izango da, Kode Zibilaren 1.905. artikuluan xedatu denez.

**23. artikulua.- Animaliak bertan behera uztea.**

1. Bertan behera utzitako animaliatzat honakoak joko dira:

a) Deslai dabiltzanak, jatorriaren eta jabearen inolako identifikaziorik ez badaukate.

b) Deslai dabiltzanak, identifikazioa eduki arren inork euren galera salatu ez badu.

2. Jabearen ondoan dabiltzan txaku-rrak, nahiz eta uhalez edo kateaz loturik ez egon, ez dira bertan behera utzitako animaliatzat joko.

**24. artikulua.- Animaliak giltzaperatzea edota hiltzea.**

1. Bertan behera utzitako animaliak, eta identifikazioa eduki arren jabeen kontrolik gabe solte dabiltzanak, Udalak atzeman egingo ditu eta giltzapean edukiko ditu, harik eta jabea bila etorri arte edo animalia inori eman arte edo akabatu arte. Udalak zerbitzu horiek egiteko hitzarmenak sinatu ahal izango ditu animaliak babestu eta defendatzeko elkarteekin, udalez gaindiko erakundeekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko eskudun organoekin.

**Artículo 22.- Responsabilidad.**

El poseedor de un animal será responsable de los daños, perjuicios y molestias que causare, conforme a lo dispuesto en el artículo 1.905 del Código Civil.

**Artículo 23.- Abandono de animales.**

1. Se considerará animal abandonado:

a) Aquel que no lleve ninguna identificación del origen y del propietario y que no vaya acompañado de persona alguna.

b) El que portando su identificación, no vaya acompañado de persona alguna, sin que se haya denunciado su extravío.

2. No tendrán la condición de abandonados aquellos perros identificados que caminen junto a sus dueños, aunque circunstancialmente no sean conducidos sujetos por correa o cadena.

**Artículo 24.- Retención y/o sacrificio.**

1. Los animales abandonados y los que, aun portando su identificación, vaguen libremente sin el control de sus poseedores, serán recogidos por el Ayuntamiento, reteniéndoles hasta que sean recuperados, cedidos o sacrificados. A tal fin, el Ayuntamiento podrá concertar la prestación de dichos servicios con asociaciones de protección y defensa de los animales, con entidades supramunicipales o con los órganos competentes de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2. Identifikatu gabeko animaliak egutegiko hogeita hamar egunetan edukiko dira giltzapean, gutxienez, eta epe horretan jabeek berreskuratu ahal izango dituzte, jabetza frogatu eta animaliaren mantenimendu eta egonaldi gastuak ordainduz gero. Epe hori amaitu eta gero, Udalak aukeran izango du animaliaz jabetzea, inori ematea edo hiltzea.

3. Animaliak identifikazioa badauka, jabeari sinesgarriro jakinaraziko zaio animalia Udalaren esku dagoela, eta egutegiko zazpi eguneko epea emango zaio animaliaren bila etortzeko. Animalia berreskuratu nahi badu, txakurtegiko egonaldiaren gastuak ordaindu beharko ditu. Zazpi eguneko epe horretan jabeak animalia berreskuratzen ez badu, Udalak aurreko idatz-zatian azaldutakoa egingo du animaliarekin.

4. Animalia batek gizakiarentzat edo beste animalia batzuentzat kutsakorra den gaitza diagnostikatu bazaio edo horren sintomak agertzen baditu, animalia hori barruratzeko edo/eta isolatzeko agindua emango du Alkatetzak, sendabidea emateko edo hiltzeko, beharrezkoa bada. Gizakiari eraso egin dion animalia ere barruratzeko edo/eta isolatzeko agindua emango da, hura aztertzeko eta sendabidea emateko edo hiltzeko.

5. Gaitz kroniko sendaezinak

2. El plazo de retención de un animal sin identificar será como mínimo de treinta días naturales, durante los cuales se encontrarán a disposición de su propietario que, si desea recuperarlo, deberá acreditar su condición de tal así como abonar los gastos de mantenimiento y estancia del animal. Transcurrido dicho plazo sin que fuere reclamado, el animal podrá ser objeto de apropiación, cedido a un tercero o sacrificado.

3. Si el animal llevara identificación, se notificará fehacientemente su recogida y/o retención al propietario quien dispondrá de un plazo de siete días naturales para su recuperación, quedando obligado al abono de los gastos que haya originado la estancia del animal en el centro de acogida. Transcurrido dicho plazo sin que el propietario lo hubiese recuperado, se dará al animal el destino previsto en el apartado anterior.

4. La Alcaldía ordenará el internamiento y/o aislamiento de los animales en caso de que se les hubiera diagnosticado o presentase síntomas de enfermedades transmisibles, tanto para el ser humano como para otros animales, ya sea para someterlos a un tratamiento curativo o para sacrificarlos si fuera necesario. Igualmente ordenará el internamiento y/o aislamiento de aquellos animales que hubieren atacado al ser humano, para su observación y adopción, en su caso, de las medidas de tratamiento curativo o sacrificio que procedan.

5. Deberán sacrificarse los animales

dituzten animaliak hiltzeko agindua emango da, jabeek behar bezala zaintzen ez badituzte.

6. Animaliak akabatu behar direnean, konortea berehala galduta eta oinazerik gabe hiltzeko metodoak erabiliko dira; beti ere, albaitariaren kontrol eta ardurapean egingo da. Jabea nor den jakinez gero, jabeak ordainduko ditu animalia hiltzeko gastuak.

7. Artikulu honetako aurreko ataletan azaldu diren osasun arrazoiak tarteko ez badira, animaliak hiltzeko agindua eman aurretik ahaleginak egingo dira jabea aurkitzeko, eta ahalik eta luzaroen eutsiko zaie bizirik animaliak gordetzeko instalazioetan.

**25. artikulua.- Eragozpenak eta espezieen ugaritzea**

1. Animaliek pertsonei eragozpenak sortu edo ondasunak hondatu ez ditzaten, herritarrek animaliaren bat deslai edo bertan behera utzita ikusten badute horren berri emango diete udal zerbitzuei. Debekatuta dago kalean eta orubeetan jaten ematea usoei eta solte dabiltzan txakur, katu eta abarreko animaliei.

2. Hirian kontrolik gabe bizi den animali espezieren bat gehiegi ugaltzen bada, udal agintariek espezie horretako populazioa mugatzeko neurri egokiak hartuko ditu.

que padezcan afecciones crónicas incurables y no estuviesen debidamente cuidados y atendidos por sus propietarios/as.

6. Si un animal ha de ser sacrificado, deberán utilizarse métodos que provoquen una pérdida de consciencia inmediata y no impliquen sufrimiento; debiendo efectuarse en todo caso bajo el control y responsabilidad de un veterinaria. Dicho sacrificio lo será con cargo al/la propietario/a, cuando éste fuere conocido.

7. Al margen de los motivos sanitarios expuestos en los apartados anteriores de este artículo, el sacrificio solamente tendrá lugar cuando se hubiere realizado todo lo razonablemente exigible para encontrar un poseedor y resultar imposible atender a los animales por más tiempo en las instalaciones existentes al efecto.

**Artículo 25.- Molestias por la proliferación de especies.**

1. Con el fin de evitar las molestias que los animales puedan ocasionar a personas o bienes, los/as ciudadanos/as comunicarán a los servicios municipales la presencia de animales vagabundos o abandonados, quedando prohibido facilitar alimento en la vía pública y solares a palomas, patos y animales vagabundos, como perros, gatos, etc.

2. Cuando la proliferación de especies animales de habitat urbano e incontrolado lo justifique, se adoptarán por las autoridades municipales las acciones necesarias que tiendan al control de su población.

## III. IZENBURUA

## ANIMALIA ARRISKUGARRIEN ARAUBIDE JURIDIKOA

### 26. artikulua.- Lizentziaren beharra.

1. Ordenantza honen 4. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoaren arabera arriskugarritzat sailkatzen diren animaliak edukitzeko, aldez aurretik udal lizentzia jaso beharko da. Lizentzia eman baino lehen espedientea instruituko da, eskatzaileak baldintza hauek guztiak betetzen dituela egiaztatzeko:

a) Adinez nagusia dela eta animalia behar bezala zaintzeko gai dela. Adinez nagusiak izan eta eskubide zibil osoak dituzten pertsona guztiek gaitasun hori dutela uste izango da, Administrazioak kontrako frogarik aurkeztu ezik.

b) Gaitasun psikologikoa izatea. Elkargokide den mediku, psikiatra edo psikologo batek emandako ziurtagiriaren bidez frogatuko da.

c) Ordenantza honen 9. artikuluko 4. idatz-zatian aipatutako erantzukizun zibileko asegurua egin izanaren egiaztagiria aurkeztuko da, animaliek beste pertsona batzuei sor diezazkieketen kalteengatik.

2. Udalak, ofizioz, animalia arriskugarritzat sailkatu ahal izango ditu 2. artikuluko 4. idatz-zatiko b) letran azaldutako inguruabarrak dituzten animaliak. Behin animalia arriskugarritzat sailkatu eta gero, jabeari aurreko idatz-zatian aipatu den lizentzia lortu behar duela adieraziko zaio, eta, ordenantza

## TÍTULO III

## RÉGIMEN JURÍDICO DE LOS ANIMALES POTENCIALMENTE PELIGROSOS

### Artículo 26.- Necesidad de licencia.

1. La tenencia de cualesquiera animales clasificados como potencialmente peligrosos al amparo de lo dispuesto en el apartado 2 del art. 4 de esta Ordenanza, requerirá de previa licencia municipal, previo expediente instruido al efecto en el que se acreditará la concurrencia de los siguientes requisitos:

a) Ser mayor de edad y no estar incapacitado para proporcionar los cuidados necesarios al animal. Dicha capacidad se presume, salvo prueba en contrario de la Administración, en todas las personas mayores de edad en el pleno ejercicio de sus derechos civiles.

b) Certificado de aptitud psicológica. Dicho extremo se acreditará mediante certificado médico expedido por facultativo, psiquiatra o psicólogo colegiado.

c) Acreditación de haber formalizado el seguro de responsabilidad civil por daños a terceros a que se refiere el apartado 4 del artículo 9 de esta Ordenanza.

2. Asimismo, el Ayuntamiento deberá catalogar de oficio como animal potencialmente peligroso a aquel en el que concurran las circunstancias establecidas en la letra b) del apartado 4 del artículo 2. Una vez catalogado un animal como potencialmente peligroso, se deberá exigir a su propietario la obtención de la licencia

honen 25. artikuluko 4. atalean azaltzen diren inguruabarrak gertatzen badira, animalia barruratzeko edo isolatzeko agindua eman ahal izango da.

establecida en el apartado anterior, pudiendo ordenará el internamiento y/o aislamiento de aquellos animales en los que concurran las circunstancias previstas en el apartado 4 del artículo 25 de la Ordenanza.

**27. artikulua.- Animalia erregistratu beharra.**

1. Animalia arriskugarrien jabeek Txakurren Erroldan eta Animalia Arriskugarrien Erregistro Berezian inskribatu beharko dituzte euren animaliak. Bai errolda eta bai erregistroa ordenantza honen 12. artikuluan araupetu dira.

2. Erregistro Berezi horretan animalia bakoitzak erregistro-orri bat izango du eta bertan jasoko dira animaliak bere bizitzan eragiten dituen gora-behera guztiak, administrazio-agintariak edo epaileak jakitun daudenean. Animalia hiltzen denean, albaitariak edo eskudun agintariak heriotzaren ziurtagiria emango du, eta horrenbestez itxiko da erregistro-orria.

**Artículo 27.- Obligación de Registro.**

1. Los titulares de animales potencialmente peligrosos deberán inscribirlos en el Censo Canino y en el Registro Especial de Animales Potencialmente Peligrosos regulados en el artículo 12 de esta Ordenanza.

2. Cualesquiera incidentes producidos por animales potencialmente peligrosos a lo largo de su vida, conocidos por las autoridades administrativas o judiciales, se harán constar en la hoja registral de cada animal del Registro Especial aludido en el apartado anterior, el cual se cerrará con su muerte certificada por veterinario o autoridad competente.

**28. artikulua.- Animalia arriskugarrien titulartasun-aldaketa.**

Animalia arriskugarrien salerosketa, eskualdatze, dohaintza edo titulartasuna aldatzea dakarren beste edozein eragiketa egiteko, betekizun hauek bete behar dira, gutxienez:

a) Saltzailearen lizentzia indarrean egotea.
b) Eragiketaren aurretik erosleak lizentzia lortzea.
c) Animaliaren osasun-kartila eguneraturik edukitzea.
d) Animaliaren eskualdaketa Udal Erroldan eta Animalia

**Artículo 28.- Cambio de titularidad de animales potencialmente peligrosos.**

Las operaciones de compraventa, traspaso, donación o cualquiera otra que suponga cambio de titular de animales potencialmente peligrosos requerirán el cumplimiento de, al menos, los siguientes requisitos:

a) Existencia de licencia vigente del vendedor.
b) Obtención de previa licencia por parte del comprador.
c) Acreditación de la Cartilla Sanitaria Canina actualizada.
d) Inscripción de la transmisión del animal en el Censo Municipal y en

Arriskutsuen Erregistro Berezian inskribatzea.

**29. artikulua.- Betebeharrak eta debekuak.**

1. Animalia arriskugarriaren egonleku izango den esparruak segurtasun-sistema egokia eduki beharko du animaliaren ihesa galarazteko, auzoko, oinezko eta gainerako animalientzat batere arriskurik egon ez dadin.

2. Debekatuta dago luza daitezkeen uhalak erabiltzea animalia lotzeko. Uhalen gehieneko luzera, beti ere, ordenantza honen 14. artikuluko 1. idatz-zatian adierazitakoa izango da.

3. “Animalia arriskugarria” sailkapena adierazten duen plaka eduki beharko du, idunekoari lotuta eta ondo ikusteko moduan.

4. Udalerri honetan animalia arriskugarriek ezin izango dute parte hartu txakurren erakusketa, lehiaketa eta beste ekitaldietan.

5. Debekatuta dago borroka eta erasorako erabiliko den agresibitatea handitzeko eta sendotzeko beren beregiko trebakuntza. Animaliak zaintza eta defentsarako trebatzen jardun ahal izateko, administrazio-agintari eskudunak emandako edo homologatutako gaitasun-agiria eduki behar da.

**IV. IZENBURUA**

el Registro Especial de Animales Potencialmente Peligrosos.

**Artículo 29.- Deberes y prohibiciones.**

1. El recinto donde se hallare el animal potencialmente peligroso deberá estar provisto del adecuado sistema de seguridad que impida la huida del mismo, con el fin de garantizar la total ausencia de peligro o riesgo tanto para los vecinos y/o transeúntes como para otros animales.

2. Quedan prohibidas las correas extensibles de sujeción, las cuales deberán tener en todo caso, la extensión máxima prevista en el apartado 1 del artículo 14 de esta Ordenanza.

3. Deberán llevar permanentemente visible y prendida del collar, una placa identificativa de su catalogación como “Animal de Riesgo”.

4. Quedarán excluidos de participar de cualesquiera exposiciones, concursos y otros eventos de la especie canina que se celebren en este término municipal.

5. Se prohibe el adiestramiento de animales dirigido exclusivamente a acrecentar y reforzar su agresividad para las peleas y ataque. El adiestramiento para guarda y defensa solo podrá efectuarse por adiestradores que estén en posesión de un certificado de capacitación expedido u homologado por la autoridad administrativa competente.

**TÍTULO IV**

**ANIMALIAK ALDI BATERAKO EDUKITZEKO ESTABLEZIMENDUEK BETE BEHAR DITUZTEN**

## I. KAPITULUA
## XEDAPEN OROKORRAK

**30. artikulua.- Titulu honen ezarpen-eremua.**

Titulu honen ezarpen-eremuan honako establezimendu hauek sartzen dira: animalien haztegiak, trebakuntza-etxeak eta aterpeak; animaliak saltzeko lokalak; albaitaritzako kontsultategi, klinika eta ospitaleak, eta udalerrira aldian-aldian etortzen diren zirkuak, herriz herriko zooak eta antzeko jarduerak.

**31. artikulua.- Udal lizentziaren beharra.**

Jarduera horiek udal lizentzia behar dute, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko indarreko arauek ezartzen duten motakoa, bidezkoa denean. Gainera, jarduerok Foru Aldundiaren Abeltzaintza Zerbitzuaren Erregistroan inskribatu behar dira.

## II. KAPITULUA
## HAZTEGIAK, TREBAKUNTZA-ETXEAK ETA ALDI BATERAKO ATERPEAK

**32. artikulua.- Erregistro-liburua.**

Haztegi, trebakuntza-etxe eta aterpeek animalien sarrera-irteeren erregistro-liburua edukiko dute eta osasun arloko agintariek edonoiz eskuratu ahal izango dute liburu hori. Saldutako animalien zerrenda emango zaio Udalari hiru hilean behin. Bertan animalien jatorria, espeziea, arraza eta eroslearen

**NORMAS A CUMPLIR POR LOS ESTABLECIMIENTOS DEDICADOS AL MANTENIMIENTO TEMPORAL DE ANIMALES**

## CAPÍTULO I
## DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 30.- Ámbito de aplicación de este Título.**

Quedan incluidos dentro de este Título los Centros de cría, adiestramiento y albergues; los locales de venta de animales; los consultorios, clínicas y hospitales veterinarios y las actividades temporales en los municipios; tales como circos, zoos, ambulantes, etc.

**Artículo 31.- Necesidad de licencia municipal.**

Estas actividades deberán tener la correspondiente licencia municipal, en los términos que determine en su caso la normativa vigente en materia de Actividades Molestas, Insalubres, Nocivas y Peligrosas y su inclusión en el oportuno Registro del Servicio Foral de Ganadería.

## CAPÍTULO II
## CENTROS DE CRÍA, ADIESTRAMIENTO Y ALBERGUES TEMPORALES

**Articulo 32.- Libro – Registro.**

Los criaderos, centros de adiestramiento y residencia llevarán un Libro de Registro de entrada y salida de animales, el cual estará a disposición de las Autoridades Sanitarias competentes, debiendo entregar trimestralmente al Ayuntamiento una relación de los animales vendidos, procedencia, especie,

izena agertaraziko dira.

**33. artikulua.- Eraikuntza, instalazio eta ekipoen ezaugarriak.**

1. Eraikuntza, instalazio eta ekipoak egokiak izango dira giro higienikoa izateko, animaliak babesteko eta animalien osasuna behar bezala zaintzeko. Egokiak izango dira, halaber, animaliak ondo gobernatuta egon daitezen eta euren berezko bizimodua izan dezaten.

2. Instalazioetan dauden pertsonek eta animaliek edateko ura kontsumituko dute, eta beste mota bateko ura erabili ahal izango da instalazioak garbitzeko.

3. Gainera, barruko saneamendu-sarea egongo da, ur beltzak eta hondakin-urak kanporatzeko, neurri zuzentzaile egokiekin, arloko araudietan ezarritakoaren arabera. Saneamendu-sistema horren bitartez, instalazioek ahalik arriskurik txikiena sortuko dute herri osasunerako eta ingurumen-higienerako.

4. Esparru, lokal eta kaiolen forma eta materialak erraz garbitu eta desinfektatzeko modukoak izango dira. Esparruok animaliaren ongizatea ziurtatzeko adinako azalera izango dute, animaliaren tamainaren araberakoa.

5. Animaliekin kontaktuan egon daitezkeen leku, material eta tresnak eta, hala denean, haiek garraiatzeko erabiltzen diren

raza y adquirente.

**Artículo 33.- Características de construcciones, instalaciones, equipos.**

1. Las construcciones, instalaciones y equipos permitirán un ambiente higiénico, protegerán a los animales albergados y facilitarán las necesarias acciones zoosanitarias. Garantizarán, asimismo, una adecuada manipulación de los animales y unas condiciones de vida aceptables de acuerdo con la naturaleza de los mismos.

2. Las instalaciones dispondrán de agua potable para el consumo de las personas y animales que se hallen en el centro, pudiéndose utilizar otro tipo de agua para la limpieza de las instalaciones.

3. Asimismo, poseerán red de saneamiento interior, dotada de las medidas correctoras adecuadas que faciliten la eliminación de excretas y aguas residuales, según lo estipulado en la reglamentación sectorial, y que aminoren los riesgos que puedan causar tanto en la salud pública, como en la higiene ambiental.

4. Los recintos, locales y jaulas se construirán en la forma y con los materiales que faciliten la fácil limpieza y desinfección. Estos recintos dispondrán de una superficie mínima, dependiendo del tamaño del animal, que garantizará el bienestar del mismo.

5. Dispondrán de útiles y medios para la limpieza y desinfección de los locales y de los utensilios que puedan estar en contacto con los

ibilgailuak garbitu eta desinfektatzeko tresnak eta baliabideak jarriko dira.

6. Hogei animaliko kaiola bat egongo da, gutxienez, gaixorik dauden edo egon litezkeen animaliak isolatu eta behatzeko. Kaiola hori garbitzen eta desinfektatzen erraza izango da.

7. Hildako animalien eta material kutsagarrien suntsiketa higienikorako bide egokiak ere egongo dira.

**34. artikulua.- Zentroetako higienea.**

1. Zentroen titularrek higiene eta profilaxirako programa zehatza egingo dute, albaitari baten ardurapean. Programa horren barruan, behar den aldi guztietan, eta gutxienez sei hilean behin, animaliek ukitzen dituzten lokal eta materialak desinfektatu egingo dira eta intsektu eta arratoiak kenduko dira.

2. Albaitari ikuskatzaile ofizialek instalazioak eta animaliak aztertuko dituzte, eta haien higiene eta osasunean akatsen bat ikusiz gero, beharrezko zuzenketak egiteko aginduko diete jardueraren titularrei.

## III. KAPITULUA
## ANIMALIAK SALTZEKO LOKALAK

**35. artikulua.- Aholkularitza teknikoa.**

Animaliak saltzeko establezimenduek albaitari-aholkularia izango dute. Honek animalien sarreren eta irteeren

animales y, en su caso, de los vehículos destinados a su transporte, cuando éste sea necesario.

6. Estarán dotados como mínimo de una jaula por cada 20 animales, para el aislamiento, secuestro y observación de animales enfermos o sospechosos de enfermedad, que se pueda limpiar y desinfectar con facilidad.

7. Dispondrán, de igual forma, de medios adecuados para la destrucción o eliminación higiénica de cadáveres de animales y materias susceptibles de causar contaminación.

**Artículo 34.- Higiene de los centros.**

1. Los titulares de los centros elaborarán un programa definido de higiene y profilaxis respaldado por un técnico veterinario, que contemplará siempre que sea necesario, y como mínimo cada seis meses, una desinfección, desinsectación y desratización a fondo de los locales y materiales en contacto con los animales.

2. Los inspectores veterinarios oficiales, a la vista del estado de las instalaciones y de los animales albergados, requerirán a los titulares de la actividad para que se adopten las medidas necesarias que subsanen las deficiencias higiénico-sanitarias observadas.

## CAPÍTULO III
## LOCALES DE VENTA DE ANIMALES

**Artículo 35.- Asesoramiento técnico.**

Los establecimientos dedicados a la venta de animales, contarán con un veterinario asesor, que se responsabilizará

erregistro-liburuaren ardura edukiko du; bertan espeziea, arraza, adina, jatorria, inportazio-baimenaren zenbakia, sarrera-eguna, irteera-eguna, destinoa eta jakin beharreko gainontzeko oharrak agertuko dira. Erregistro-liburua Udaleko osasun arloko agintarien eskura egongo da.

**36. artikulua.- Formazko betebeharrak.**

1. Animalia biziaren saltzaileak erosleari animaliaren jatorria eta ezaugarriak agertzen dituen agiria eman behar dio, eta animaliaren osasunaren ziurtagiria ere bai. Ziurtagiri hori gora-behera, establezimenduaren jabeak erantzukizuna izango du baldin eta animaliari geroago gaixotasunen bat azaltzen bazaio, salmentaren unean inkubatzen ari zena.

2. Beti ere, saltzaileak ordenantzan ezarrita dauden formazko betebeharrak betetzea erraztuko dio erosleari, batez ere Txakurren Erroldari eta Osasun Kartilari dagozkionak.

**37. artikulua.- Lokalak.**

Animaliak saltzeko lokaletan, animalien esparru, kaiola edo erakustokiak animaliak ondo eta eroso egoteko modukoak izango dira.

**38. artikulua.- Fauna babestua.**

Babestuta dauden espezieetako animaliak ezin dira inola ere merkaturatu.

## IV. KAPITULUA ALBAITARIEN KONTSULTATEGIAK, KLINIKAK ETA OSPITALEAK

del libro de registro de entrada y salida de animales, en el que se detallará la especie, raza, edad, procedencia, el número del permiso de importación, fecha de entrada y salida y destino y cuantas observaciones resulten de interés estando a disposición de las Autoridades Sanitarias Municipales.

**Artículo 36.- Obligaciones formales.**

1. El vendedor de un animal vivo tendrá que entregar al comprador un documento donde se reflejen la procedencia y características del animal, así como certificado de su estado sanitario. Este certificado no excusará al propietario del establecimiento de su responsabilidad frente a enfermedades de incubación, no detectadas en el momento de la venta.

2. En todo caso, el vendedor facilitará al comprador el cumplimiento de todas las obligaciones formales previstas en la Ordenanza, en especial las derivadas del Censo Canino y Cartilla Sanitaria.

**Artículo 37.- Locales.**

Los locales que se dediquen a la venta de animales dispondrán de recintos, jaulas o contenedores capaces de albergar en condiciones óptimas a los animales expuestos.

**Artículo 38.- Fauna protegida.**

En ningún caso se podrán comercializar ejemplares de animales pertenecientes a la fauna protegida.

## CAPÍTULO IV CONSULTORIOS, CLÍNICAS Y HOSPITALES VETERINARIOS

**39. artikulua.- Definizioak.**

1. Animalia txikiak azterketa klinikoak egitera eta sendatzera eramaten diren establezimenduak honela sailkatzen dira: albaitaritzako kontsultategia, albaitaritza-klinika eta albaitaritza-ospitalea.

2. Albaitaritzako kontsultategia. Gune hauek ditu, gutxienez: harrera-gela, eta kontsultak, sendaketak eta ebakuntza txikiak egiteko gela.

3. Albaitaritza-klinika. Gune hauek ditu, gutxienez: itxaron-gela, kontsulta-gela, ebakuntza-gela, erradiologia instalazioa, laborategia, eta, aukeran, suspertze instalazioak.

4. Albaitaritzako ospitalea. Albaitaritzako klinikak dituen instalazioez gainera, animaliak ospitaleratzeko gela edukiko du. Ospitaleratzen diren animaliak egunaren 24 orduetan osasun-zaintzapean egongo dira eta jaramon egingo zaie etenik gabe.

**Artículo 39.- Definiciones.**

1. Los establecimientos dedicados a consultas clínicas y aplicación de tratamientos sanitarios a pequeños animales con carácter ambulatorio, se clasificarán en consultorio veterinario, clínica veterinaria y hospital veterinario.

2. Consultorio veterinario: Es el conjunto de dependencias que comprenden, como mínimo, de una sala de recepción y una sala para consulta y pequeñas intervenciones de cura y cirugía.

3. Clínica veterinaria: Es el conjunto de locales que constan, como mínimo, de una sala de espera, una sala de consulta, una sala reservada para intervenciones quirúrgicas, instalación radiológica, laboratorio y posibilidades de reanimación.

4. Hospital veterinario: Además de las condiciones requeridas para la clínica veterinaria, contará con una sala de hospitalización con vigilancia sanitaria asegurada las 24 horas del día y la atención continuada a los animales hospitalizados.

**40. artikulua.- Udal lizentzia.**

1. Establezimendu horiek guztiek udal lizentzia behar dute. Erakin oso bat hartu dezakete, edo beheko solairuetako lonjetan koka daitezke, albaitaritzako ospitaleak izan ezik. Debekaturik dago jarduera horiek etxebizitza-eraikinetako goiko solairuetan kokatzea. Animalien egoitza eta etxeetan ere ezin da horrelako kontsultarik kokatu, salbu eta kontsultaren titularra egoitzaren jabea bera denean. Horrelakoetan, albaitaritzako gunea behar bezala isolatuko da gainerako guneetatik, ez da zuzeneko sarrerarik izango

**Artículo 40.- Licencia municipal.**

1. Todos estos establecimientos requerirán licencia municipal, pudiéndose ubicar exclusivamente en edificios aislados o en lonjas situadas en planta baja, excepto los hospitales veterinarios, quedando prohibido el ejercicio de esta actividad en pisos de edificios destinados a viviendas. Asimismo, no podrán situarse en guarderías ni residencias de animales, salvo que éstas sean propiedad del titular de dichas consultas, estuvieran convenientemente aisladas del resto de las dependencias, sin posibilidad de acceso

establezimendu batetik bestera, eta establezimendu biek beteko dituzte eskatzen zaizkien baldintzak.

2. Albaitaritza-ospitaleak etxebizitzetatik bereiz egongo dira, eraikin isolatu eta itxietan, eta kanpoaldean gune askea izango dute, ospitaleko plaza bakoitzeko 20 metro karratu, gutxienez. Baldintza horiek betetzen ez direnean ez da albaitaritza-ospitalerako baimenik emango.

3. Debekaturik dago merkataritzako establezimenduetan noizbehinka edo aldian-aldian albaitaritzako kontsultak egitea, batez ere farmazietan, janari-dendetan, ostatu eta jatetxeetan, animaliak saltzeko dendetan eta animaliak babesteko elkarte eta erakundeen lokaletan.

**41. artikulua.- Instalazioen ezaugarri teknikoak.**

Ekipamendu eta instalazioek euren arloko arauak beteko dituzte, eta gainera honako hauek ere bai:

- Zoruak iragazkaitzak, sendoak eta garbitzen errazak izango dira.

- Hormak gutxienez 1,75 metroko altueraraino alikatatuko dira, eta hormen goiko zatia eta sabaiak erraz artatu, garbitu eta desinfektatzen diren materialez estaliko dira.

- Hildako animalien gorputzak eskualdeko zerbitzuaren bitartez iraitziko dira.

- Hondakinak ontzi itxi eta hermetikoetan sartuta iraitziko dira, unean uneko arau zehatzak betez.

directo de uno a otro establecimiento y reúnan ambas los requisitos exigidos.

2. Los hospitales veterinarios sólo podrán ser autorizados cuando su emplazamiento se encuentre separado de toda vivienda, en edificio dedicado al efecto y cerrado, disponiendo de espacio libre, con un mínimo de 20 metros cuadrados por plaza hospitalaria.

3. Se prohíbe tener ocasional, accesoria o periódicamente consultas veterinarias en establecimientos comerciales o en sus dependencias, especialmente en oficinas de farmacia, establecimientos de alimentación, hostelería o restauración, locales de venta de animales y otros locales ocupados por sociedades u otros organismos de protección de animales.

**Artículo 41.- Características técnicas de las instalaciones.**

Los equipamientos e instalaciones cumplirán las normas sectoriales que las regulan y además:

- Los suelos serán impermeables, resistentes y lavables.

- Los paramentos verticales estarán alicatados hasta una altura mínima de 1,75 metros del suelo, siendo el resto y los techos de materiales que permitan su conservación, limpieza y desinfección.

- La eliminación de cadáveres se hará a través del servicio comarcal existente.

- La eliminación de los residuos generados se efectuará en recipientes cerrados y estancos, bajo las normas específicas estipuladas en cada momento.

## V. KAPITULUA
## ALDI BATERAKO JARDUERAK

**42. artikulua.- Udal baimenak.**

1. Honelako jarduerak aldi baterako ezarri ahal izateko, beti eduki behar dira beharrezko udal baimen guztiak.

2. Gainera, higiene eta osasun arloan jarduera finkoen antzeko baldintzak beteko dituzte, unean uneko salbuespenekin.

3. Arauzko agiri guztiak eduki behar dituzte: baimenak, ziurtagiriak, jabetza-agiriak, jardueran erabiltzen diren animalien osasunaren eta jatorriaren ziurtagiriak.

**43. artikulua.- Kontrola.**

Udaltzaingoaren zerbitzuek aldi baterako jarduerak zainduko dituzte eta ordenantza hau betearaziko diete, eta bidezkoa denean zehapen espedientea hasteko proposatuko diote Alkatetzari.

## V. IZENBURUA
## ZEHATZEKO ARAUBIDEA

## I. KAPITULUA
## URRATZEAK

**44. artikulua.- Urratzeen sailkapena.**

Ordenantza honetako arauen urratzeak arinak, larriak eta oso larriak izango dira.

## CAPÍTULO V
## ACTIVIDADES TEMPORALES

**Artículo 42.- Permisos municipales.**

1. Este tipo de actividades deberán reunir en cada momento los debidos permisos municipales para su establecimiento temporal.

2. Deberán cumplir, además, las condiciones higiénico sanitarias con las excepciones que marque la eventualidad, similares a las de las fijas.

3. Deberán disponer de toda la documentación en regla, relativa a permisos, certificados y demás requisitos relativos a la propiedad, certificados sanitarios y de origen de los animales que tomen parte en su actividad.

**Artículo 43.- Control.**

Por los servicios de la Policía Municipal se vigilará y exigirá el cumplimiento de la presente Ordenanza, proponiendo a la Alcaldía la incoación del oportuno expediente sancionador, si procede.

## TÍTULO V
## DEL RÉGIMEN SANCIONADOR

## CAPÍTULO I
## DE LAS INFRACCIONES

**Artículo 44.- Clasificación de infracciones.**

A los efectos de esta ordenanza las infracciones se clasificarán en leves,

graves, y muy graves.

### *1. atala*

Urratze arruntak.

**45. artikulua.- Urratze arinak.**

Honako hauek dira arau-hauste arinak:

a) Identifikatu gabeko laguntza-animaliak edukitzea identifikazioa nahitaezkoa denean.

b) Animaliak garraiatzen direnean autonomi erkidegoko legeetan eta ordenantza honetan ezarritakoa ez betetzea.

c) Animaliak behar bezala kontrolatu eta zaindu ezin diren lekuetan edukitzea.

d) Animaliei tratu iraingarria ematea, edo berezkoa ez duten moduan jokatzera derrigortzea.

e) Txakurren gorozkiak herriko bide eta plazetan, umeen parkeetan eta lorategietan uztea.

f) Erantzukizun zibileko polizarik ez edukitzea, ordenantza honen arabera nahitaezkoa denean, eta polizarik ez edukitzea urratze larritzat sailkatuta ez dagoenean.

g) Ordenantza honetako arauen beste urratze guztiak, larritzat edo oso larritzat sailkatuta ez daudenean.

**46. artikulua.- Urratze larriak.**

### *Sección 1ª*

De las infracciones comunes

**Artículo 45.- Infracciones leves.**

Se considerarán infracciones leves:

a) Poseer animales de compañía sin identificación censal, cuando la misma fuera exigible.

b) El transporte de animales con incumplimiento de lo dispuesto la legislación autonómica o en la presente Ordenanza.

c) La tenencia de animales en lugares donde no pueda ejercerse sobre ellos la adecuada atención y vigilancia.

d) Someter a los animales a trato vejatorio o a la realización de comportamientos o actitudes impropias de su condición.

e) Abandonar las deyecciones de los perros en las vías y plazas públicas, parques infantiles y jardines.

f) No haber suscrito la correspondiente póliza de responsabilidad civil cuando fuera exigible en virtud de la presente Ordenanza, siempre que no constituya falta grave.

g) Cualquier otra infracción a los deberes y obligaciones previstos en esta Ordenanza, que no esté tipificada como falta grave o muy grave.

**Artículo 46.- Infracciones graves.**

Honako hauek dira urratze larriak:

a) Animaliak behar beste ez elikatzea edo higiene eta osasunaren ikuspuntutik egokiak ez diren lekuetan edukitzea.

b) Animaliak antzutzea, mozketak egitea eta hiltzea albaitariaren kontrol barik edo Animalien Babesari buruzko Legean eta hura garatu duten arauetan ezarritakoaren aurka.

c) Txertoa ez egitea edo nahitaezko tratamenduak ez ematea.

d) Animaliak baimen barik saltzea.

e) Animalien Babesari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legean eta hura garatu duten arauetan animaliak aldi baterako edukitzeko establezimenduetarako, haztegietarako eta saltegietarako ezarritako baldintzak eta betebeharrak ez betetzea.

f) Animaliei tratu txarrak ematea edo eraso egitea, min ematea edo zauriak edo mozketak egitea, beharrik ez dagoenean.

g) Animaliei min edo kalte egiten dieten substantziak ematea, zuzenean edo janariekin nahasturik, beharrik ez dagoenean.

h) Kalteak eragin ditzaketen animaliak zaintzen nahikoa ez arduratzea.

i) Animaliek gaitz eta min nabariak eta larriak izan eta albaitaritza-laguntza egokirik ez ematea.

j) Ikuskizunetan animaliak erabiltzea

Se considerarán infracciones graves:

a) El mantenimiento de los animales sin la alimentación necesaria o en instalaciones indebidas desde el punto de vista higiénico - sanitario.

b) La esterilización, la práctica de mutilaciones y el sacrificio de animales sin control veterinario o en contra de lo establecido en la Ley de protección de Animales y normas de desarrollo.

c) La no vacunación o la no realización de tratamientos obligatorios.

d) La venta de animales no autorizada.

e) El incumplimiento por parte de los establecimientos de las condiciones para el mantenimiento temporal de animales, cría, o venta de los mismos o cualesquiera de los requisitos y condiciones establecidas en la Ley 6/1993, de 29 de octubre, de Protección de los Animales o en sus normas de desarrollo.

f) Maltratar o agredir a los animales causándoles sufrimientos innecesarios, lesiones o mutilaciones.

g) Suministrar a los animales directamente o a través de los alimentos, sustancias que puedan causarles sufrimientos o daños innecesarios.

h) No mantener la debida diligencia en la custodia y guarda de animales que puedan causar daños.

i) No prestar a los animales asistencia veterinaria adecuada ante dolencias o sufrimientos graves y manifiestos.

j) Hacer participar a los animales en

administrazio-baimenik eduki gabe.

k) Animalia uhalez lotuta ez edukitzea, nahitaez lotuta eduki behar denean, edo uhala egokia ez izatea, ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.

l) Txakurtegian dagoen animalia hartu nahi ez izatea, norbera animaliaren jabea dela egiaztaturik dagoenean.

m) Zigor irmoa jaso duten hiru urratze arin egin izana zigor-espedientea hasi aurretiko bi urteetan.

**47. artikulua.- Urratze oso larriak.**

Honako hauek dira urratze oso larriak:

a) Animaliak erasoen bidez edo substantzia toxikoak emanez hiltzea.

b) Laguntza-animaliak edo etxeko animaliak deslai uztea.

c) Itxurak egin barik, benetako krudelkeria, tratu txarra edo oinazea dakarten eszenak grabatzea animaliekin, zinerako edo telebistarako.

d) Baimendutako ikuskizunetan parte hartzen duten animaliei anestesiak, drogak edo bestelako produktuak ematea animalien otzantasuna, errendimendu fisiko handiagoa edo berezkoa ez duten edozein jokabide lortzeko.

e) Janari pozoituak kale eta leku publikoetan uztea.

espectáculos carentes de la correspondiente autorización administrativa.

k) El no mantener al animal con la correspondiente correa, cuando fuera preceptivo, o con una correa inadecuada conforme a lo dispuesto en esta Ordenanza.

l) El negarse a hacerse cargo de los animales recogidos en la perrera y que sean identificados como de su propiedad.

m) La comisión de tres infracciones leves, con imposición de sanción por resolución firme, durante los dos años anteriores al inicio del expediente sancionador.

**Artículo 47.- Infracciones muy graves.**

Se considerarán infracciones muy graves:

a) Causar la muerte a los animales mediante actos de agresión o suministro de sustancias tóxicas.

b) El abandono de un animal doméstico o de compañía.

c) La filmación de escenas con animales para cine o televisión que conlleven crueldad, maltrato o sufrimiento no simulado.

d) Suministrar a los animales que intervengan en espectáculos permitidos anestesia, drogas y otros productos con el fin de conseguir su docilidad, mayor rendimiento físico o cualquier otro fin contrario a su comportamiento natural.

e) Depositar alimentos emponzoñados en vías y espacios públicos.

f) Animaliak debekatutako ikuskizunetan parte harraraztea.

g) Zigor irmoa jaso duten hiru urratze larri egin izana zigor-espedientea hasi aurretiko bi urteetan.

f) Hacer participar a los animales en espectáculos prohibidos.

g) La comisión de tres infracciones graves, con imposición de sanción por resolución firme, durante los dos años anteriores al inicio del expediente sancionador.

### *2. atala*

Animalia arriskugarriei buruzko arauen urratzeak

### *Sección 2ª*

De las infracciones a las normas sobre Animales Potencialmente Peligrosos

**48. artikulua.- Animalia arriskugarriei buruzko arauen urratze oso larriak.**

Honako jokabide hauek animalia arriskugarriak edukitzeko araubide juridikoaren kontrako administrazio-urratze oso larriak dira:

a) Animalia arriskugarriak deslai uztea, edozein dela animaliaren espeziea edo txakurraren arraza.

b) Txakur edo bestelako animalia arriskugarriak lizentzia barik edukitzea.

c) Gaitasun-ziurtagiririk ez daukatenek txakur edo bestelako animalia arriskugarriak saltzea edo inori edozein tituluren bitartez ematea.

d) Animaliak trebatzea euren agresibitatea areagotzeko edo debekatutako helburuetarako.

e) Gaitasun-ziurtagiririk eduki gabe animalia arriskugarriak trebatzea.

f) Animalia arriskugarrien

**Artículo 48.- Infracciones muy graves sobre Animales Potencialmente Peligrosos.**

Tendrán la consideración de infracciones administrativas muy graves al régimen jurídico de Tenencia de Animales Peligrosos, las siguientes conductas:

a) Abandonar un animal potencialmente peligroso, de cualquier especie y cualquier perro.

b) Poseer perros o animales potencialmente peligrosos sin licencia.

c) Vender o transmitir por cualquier título un perro a animal potencialmente peligroso por quien carezca de certificado de capacitación.

d) Adiestrar animales para activar su agresividad o para finalidades prohibidas.

e) Adiestrar animales potencialmente peligrosos por quien carezca del certificado de capacitación.

f) La organización o celebración de

agresibitatea erakusteko diren lehiaketak, ariketak, erakusketak edo ikuskizunak antolatzea edo egitea, edo horietan parte hartzea.

concursos, ejercicios, exhibiciones o espectáculos de animales potencialmente peligrosos o su participación en ellos, destinados a demostrar la agresividad de los animales.

**49. artikulua.- Animalia arriskugarriei buruzko arauen urratze larriak.**

Honako jokabide hauek animalia arriskugarriak edukitzeko araubide juridikoaren kontrako administrazio-urratze larriak dira:

a) Animalia identifikatzeko betebeharra ez betetzea.

b) Animalia Udal Erregistroan inskribatu gabe edukitzea.

c) Txakur arriskugarriak leku publikoetan muturrekorik gabe edukitzea.

d) Txakurra uhalez lotuta ez edukitzea, txakurren zabalaldirako atondutako lekuetan izan ezik, edo uhala egokia ez izatea, ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.

e) Animalia arriskugarriak garraiatzen direnean legeetan edo ordenantza honetan xedatutakoa ez betetzea.

f) Ordenantza honetan ezarri zaizkien eginkizunak betetzen ari direnean eskudun agintariek eta haien agenteek eskatzen dituzten datuak eman nahi ez izatea, edo gezurrezko datuak ematea edo agiri faltsuak aurkeztea.

**Artículo 49.- Infracciones graves sobre Animales Potencialmente Peligrosos.**

Tendrán la consideración de infracciones administrativas graves al régimen jurídico de Tenencia de Animales Peligrosos, las siguientes conductas:

a) Incumplir la obligación de identificar al animal.

b) Omitir la inscripción en el Registro Municipal.

c) Hallarse el perro potencialmente peligroso en lugares públicos sin bozal.

d) No llevar el perro sujeto con correa o con correa que no se ajuste a lo dispuesto en esta Ordenanza, salvo en las áreas de esparcimiento habilitadas a tal efecto.

e) El transporte de animales peligrosos con infracción a lo dispuesto en la Ley o en esta Ordenanza.

f) La negativa o resistencia a suministrar datos o facilitar la información requerida por las autoridades competentes o sus agentes, en orden al cumplimiento de funciones establecidas en esta Ley, así como el suministro de información inexacta o documentación falsa.

**50. artikulua.- Animalia arriskugarriei buruzko arauen urratze arinak.**

Ordenantza honen III. izenburuan azaltzen diren betebeharretatik edozein ez betetzea administrazio-urratze arintzat joko da, beren beregi urratze oso larritzat edo larritzat sailkaturik ez badago.

**Artículo 50.- Infracciones leves sobre Animales Potencialmente Peligrosos.**

Tendrán la consideración de infracciones administrativas leves el incumplimiento de cualesquiera otras obligaciones o deberes impuestos por el Título III de esta Ordenanza, que no estuvieran expresamente tipificados como infracciones muy graves o graves.

## CAPÍTULO II
## DE LAS SANCIONES

## II. KAPITULUA
## ZEHAPENAK

**Artículo 51.- Cuantía de las sanciones.**

La comisión de infracciones antedichas será sancionada con multa pecuniaria, en función de si se trata de infracciones comunes o a la normativa sobre Animales Potencialmente Peligrosos, con arreglo a lo previsto en el presente cuadro:

**51. artikulua.- Isunen zenbatekoa.**

Aurrean azaldu diren urratzeak egiteagatik, beheko koadroan ageri diren isunak jarriko dira. Kontuan hartuko da urratzea arrunta den edo animalia arriskugarriei buruzko arauen kontrakoa den.

| Urratze-mota<br>Clase infracción | Urratze arrunta<br>Infracción común | Animalia arriskugarriei buruzko arauen urratzea<br>Infracción normativa animales potencialmente peligrosos |
|---|---|---|
| Arina / Leve | 30,00 – 300,00 euro/s | 150,00 – 300,00 euro/s |
| Larria / Grave | 300,01 – 1.500,00 euro/s | 300,01 – 1.500,00 euro/s |
| Oso larria / Muy grave | 1.500,01 – 3.000,00 euro/s | 1.500,01 – 3.000,00 euro/s |

**52. artikulua.- Zehapen osagarriak.**

1. Isuna jartzeaz gainera, animalia dekomisatzeko agindu ahal izango da ebazpenean, animaliaren osotasun fisikoa babestu beharra dagoenean.

2. Animalia arriskugarriei buruzko arauen urratze larriak edo oso larriak egiten direnean, isuna ezarri eta animalia dekomisatzeaz gainera beste neurri batzuk hartu ahal izango dira, hala nola,

**Artículo 52.- Sanciones accesorias**

1. La resolución sancionadora podrá llevar aparejada el decomiso de los animales objeto de la infracción cuando fuere necesario para garantizar la integridad física del animal.

2. Asimismo, en el supuesto de infracciones graves o muy graves a la normativa sobre animales potencialmente peligrosos, la resolución sancionadora podrá llevar aparejada, además del

animalia arriskugarriak konfiskatu, antzutu edo hiltzea, establezimendua ixtea, edo animalia arriskugarriak edukitzeko lizentzia aldi baterako edo betiko kentzea.

3. Dekomisatutako animaliak beren beregi atondutako instalazioetan edukiko dira. Ahal dela, beste jabe bat bilatuko zaie, eta beste irtenbiderik ez dagoenean hil egingo dira.

4. Administrazio-urratze larriak edo oso larriak egiten dituztenei instalazio, lokal edo establezimenduak aldi baterako itxi ahal izango zaizkie, gehienez bi urterako, urratzea larria bada, edo lau urterako, oso larria bada. Gainera, animaliak eskuratzea debekatu ahal izango zaie lau urterako, gehienez.

5. Urratze oso larri bat egin eta handik hiru urte igaro aurretik beste bat egiten dutenei administrazio-baimena kenduko zaie.

**53. artikulua.- Graduaziorako irizpideak.**

1. Isunen zenbatekoa eta aurreko artikuluko 2. idatz-zatian aipatutako zehapenen iraupena zehazteko, inguruabar hauek hartuko dira kontuan:

a) Urratzeak gizarte edo osasun mailan izan duen eragina eta sortu dituen kalteak.

b) Legez kanpoko irabazi-asmoa

decomiso, la adopción de otras medidas tales como la confiscación, la esterilización o el sacrificio de los animales potencialmente peligrosos, la clausura del establecimiento y la suspensión temporal o definitiva de la licencia para tenencia de animales potencialmente peligrosos.

3. Los animales decomisados se custodiarán en las instalaciones habitadas al efecto y serán preferentemente cedidos a terceros, y en última instancia sacrificados.

4. La comisión de infracciones comunes graves y muy graves, podrá comportar la clausura temporal de las instalaciones, locales o establecimientos respectivos, hasta un máximo de dos años para las graves y un máximo de cuatro años para las muy graves, así como la prohibición de adquirir otros animales por un periodo máximo de cuatro años.

5. La reincidencia, en plazo inferior a tres años, en faltas tipificadas como muy graves comportará la pérdida de la autorización administrativa.

**Artículo 53. Criterios de graduación.**

1. Para la graduación de las cuantías de las multas y la determinación del tiempo de duración de las sanciones previstas en el apartado 2 del artículo precedente se tendrán en cuenta las siguientes circunstancias:

a) La trascendencia social o sanitaria y el perjuicio causado por la infracción cometida.

b) El ánimo de lucro ilícito y la

eta urratzeak ekarritako mozkinaren zenbatekoa.

c) Urratzea behin baino gehiagotan egitea. Urratzea behin baino gehiagotan egin dela esaten da ordenantza honetan aipatutako urratze bat administrazio-bideko erabaki irmoaren bidez zigortu denean, zehapen-espedientea hasi aurreko bost urteetan.

d) Urratzea arindu edo astundu dezakeen beste edozein inguruabar. Horretarako, bereziki kontuan hartuko da umeen edo adimen-gaitasunik gabekoen aurrean gauzatzen bada animalien kontrako indarkeria.

2. Analogiaren bidez, ahal den neurrian, eta administrazio-arloaren ezaugarrietara moldatuta, legezaurkakotasuna eta erruduntasuna baztertzeari buruzko zigor-arauak aplikatuko dira. Hori gora-behera, aipatutako arloaren beste inguruabar garrantzitsu batzuk aintzakotzat hartuko dira, ondore berberetarako.

3. Arau desberdinetan tipifikaturik dauden administrazio-urratze bi edo gehiago batera egiten badira egitate berean, urratzerik larrienari dagokion zehapena ezarriko da. Zehatzeko ahalmena daukan organoak izango du eskumena espedientea instruitu eta ebazteko.

## III. KAPITULUA ZEHATZEKO ESKUMENA

**54. artikulua.- Eskumena.**

cuantía del beneficio obtenido en la comisión de la infracción.

c) La reiteración en la comisión de infracciones. Existe reiteración cuando se hubiere impuesto sanción mediante resolución firme en vía administrativa por comisión de una de las infracciones previstas en la presente ordenanza en el plazo de cinco años anteriores al inicio del expediente sancionador.

d) Cualquier otra que pueda incidir en el grado de reprochabilidad de la infracción, en un sentido atenuante o agravante. A tal efecto tendrá especial significación la violencia ejercida contra animales en presencia de niños/as o discapacitados/as psíquicos/as.

2. Se aplicará analógicamente, en la medida de lo posible y con las matizaciones y adaptaciones que exija la peculiaridad del sector administrativo, de que se trata, las reglas penales sobre exclusión de la antijuridicidad y de la culpabilidad, sin perjuicio de atender, a idénticos efectos, a otras circunstancias relevantes en dicho sector.

3. En el supuesto de que unos mismos hechos sean constitutivos de dos o más infracciones administrativas tipificadas en distintas normas, se impondrá la sanción de mayor cuantía, siendo competente para instruir y resolver el expediente el órgano en quien resida la potestad sancionadora.

## CAPÍTULO III DE LA COMPETENCIA SANCIONADORA

**Artículo 54.- Competencia.**

1. Urriaren 29ko 6/1993 Legearen arabera foru organoek zehapenak ezartzeko daukaten eskumenaren kalterik gabe, Udalak zehatuko ditu ordenantza honetako xedapenak urratzen dituztenak.

2. Alkatetza-Udalburutzak izango du eskumena urratze arinengatiko zehapen-espedienteak hasteko eta ebazteko, horien berri emanez organo kolejiatuei hauen lehendabiziko bilkuran.

3. Alkatetza-Udalburutzak izango du eskumena urratze larriengatiko zehapen-espedienteak ebazteko.

4. Udalbatzaren Osoko Bilkurak zehatuko ditu urratze oso larrien egileak.

## IV. KAPITULUA
## ZEHATZEKO PROZEDURA

**55. artikulua.-** 1. Zehapen-prozedura hasi eta gero, urratzea egin duenak urratze gehiago egin ez dezan, espedientearen instruktoreak kautelazko neurri hauek hartu ahal izango ditu, eta horrela egiten badu zioak azaldu beharko ditu:

a) Animaliaren batek ordenantza honetan azaldu diren tratu desegoki edo erasoetariko baten bat jasan izanaren susmorik egonez gero, animalia jabeari kentzea, badaezpada, eta animaliak jasotzeko zentro batean edukitzea.

b) Instalazio, lokal edo establezimenduak badaezpada ixtea.

1. Sin perjuicio de la competencia sancionadora de los órganos forales regulada en la Ley 6/1993, de 29 de octubre, las infracciones a lo dispuesto en esta Ordenanza serán sancionadas por el Ayuntamiento.

2. Será órgano competente para incoar y resolver la comisión de infracciones tipificadas como leves, la Alcaldía – Presidencia, dando cuenta a los órganos colegiados en la primera sesión de los mismos.

3. Será órgano competente para resolver las infracciones tipificadas como graves, la Alcaldía Presiodencia.

4. Las infracciones tipificadas como muy graves, serán sancionadas por el Pleno de la Corporación.

## CAPÍTULO IV
## DEL PROCEDIMIENTO SANCIONADOR

**Artículo 55.-** 1. Iniciado el expediente sancionador, y con el fin de evitar la comisión de nuevas infracciones, el instructor del expediente podrá adoptar motivadamente las siguientes medidas cautelares:

a) La retirada preventiva de los animales sobre los que existan indicios de haber sufrido alguno de los supuestos prescritos por la presente Ordenanza, y la custodia, tras su ingreso, en un centro de recogida de animales.

b) La clausura preventiva de las instalaciones, locales o establecimientos.

2. Kautelazko neurriak hartzeko arrazoiek dirauten bitartean, neurri horiek iraun egingo dute. Dena dela, jabeari kendutako animalia espedienteari buruzko ebazpen irmoa ematen den arte eduki ahal izango da zaintzapean, eta establezimenduak itxita iraungo duten epea ordenantza honen 52.4. artikuluan aipatutako epearen erdia izango da, gehienez ere.

2. Las medidas cautelares durarán mientras persistan las causas que motivaron su adopción. En todo caso, la retirada de animales no podrá prolongarse más allá de la resolución firme del expediente, ni la clausura exceder de la mitad del plazo establecido en el artículo 52.4 de esta Ordenanza.

**56. artikulua.- Concurrencia con procesos judiciales.**

**Artículo 56.- Concurrencia con procesos judiciales.**

1. Urratzeak delitutzat edo hutsegitetzat jotzen direnean, zehatzeko eskumena daukan administrazio-organoak gertaeren berri emango dio zigor-jurisdikzioari, eta ez du zehapen-prozedura erabiliko harik eta epaileak ebazpen irmoa eman arte. Ordura arte, preskribatzeko epea etenda egongo da.

1. En los supuestos en que las infracciones pudieran ser constitutivas de delito o falta, el órgano administrativo competente para la imposición de la sanción pondrá los hechos en conocimiento de la jurisdicción penal, absteniéndose de proseguir el procedimiento sancionador mientras no recaiga la resolución judicial firme y quedando hasta entonces interrumpido el plazo de prescripción.

2. Epaileak kondena jartzen badu ez da administrazio-zehapenik ezarriko.

2. La condena de la autoridad judicial excluirá la sanción administrativa.

3. Zigor-jurisdikzioak, epailearen ebazpen irmoaren bidez, erruztatuak zigor-erantzukizunik ez daukala adierazten badu, administrazioak zehapen-espedienteari berriro ekin ahal izango dio, egoki bada, frogatuta dauzkan gertakariak oinarritzat hartuz.

3. Cuando la jurisdicción penal declare por resolución judicial firme la inexistencia de responsabilidad penal en el/la inculpado/a, la Administración podrá continuar el expediente sancionador con base, en su caso, en los hechos probados por aquélla.

4. Epaileak esku hartu baino lehen administrazio-espedienteak instruitzen dituzten agintariek hartutako kautelazko neurriak indarrean egon ahal izango dira harik eta epaileak gaiari buruz beren beregi bere iritzia azaldu arte.

4. Las medidas cautelares adoptadas por las autoridades instructoras de los expedientes administrativos antes de la intervención judicial podrán mantenerse en vigor mientras no recaiga pronunciamiento expreso al respecto de las autoridades judiciales.

**57. artikulua.- Preskripzioa.**

**Artículo 57.- Prescripción.**

1. Ordenantza honetan adierazitako urratze arinek lau hilabetera preskribatuko dute, larriek urtebetera eta oso larriek bi

1. Las infracciones previstas en esta ordenanza prescribirán a los cuatro meses en el caso de las leves, al año en el

urtera.

2. Urratzeen preskripzio-epea urratzeak egiten diren egunetik hasita zenbatuko da.

3. 3.000 euroko edo gehiagoko isunek bost urtera presribatuko dute, eta kopuru horretatik beherakoek urtebetera.

4. Zehapenen preskripzio-epea zehapena ezartzeko ebazpena irmo bihurtzen den egunaren biharamunetaik hasita zenbatuko da.

**58. artikulua.- Zehapenen betearazgarritasuna.**

Isunak borondatezko aldian ordainduko dira edo bestela premiamendu bidetik ordainaraziko dira, Toki Araubideari buruzko arauekin eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki erakundeen zuzenbide publikoko sarreren bilketari buruzko arauekin bat etorriz.

**XEDAPEN IRAGANKORRAK**

**Lehenengoa.-** Euskal Autonomia Erkidegoak txakur arraza arriskutsuen katalogoa egin arte, ordenantza honen 2. artikuluko 4. idatz-zatiko c) letran ezarritakoaren ondoreetarako, Udalak txakur arriskugarritzat joko ditu arraza hauetako txakurrak eta arraza hauen arteko nahasteak direnak:

- bullmastiffa,
- dobermana,
- dobatxakur argentinarra,
- Bordeleko dobatxakurra,
- fila brasildarra,
- artzakur napoliarra,
- pit bulla,

caso de las graves y a los dos años en el caso de las muy graves.

2. El plazo de prescripción de las infracciones se computará desde el día en que se hubieren cometido.

3. Las sanciones prescribirán a los cinco años cuando su cuantía sea igual o superior a 3.000 euros, y al año cuando sea inferior a esta cantidad.

4. El plazo de prescripción de las sanciones comenzará a contarse desde el día siguiente a aquel en que adquiera firmeza la resolución por la que se impone la sanción.

**Artículo 58.- Ejecutividad de las sanciones.**

Las multas se exigirán en período voluntario o por la vía de apremio de conformidad con las normas de Régimen Local y de recaudación de los ingresos de derecho público de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

**DISPOSICIONES TRANSITORIAS**

**Primera.-** A los efectos de lo establecido en el Artículo 2, apartado 4, letra c), en tanto la Comunidad Autónoma del País Vasco no proceda a la catalogación de las razas que se consideran potencialmente peligrosas, este Ayuntamiento cataloga como tales y define como potencialmente peligrosas a los perros que pertenezcan a una de las siguientes razas o a sus cruces:

- bullmastiff,
- dobermann,
- dogo argentino,
- dogo de Burdeos,
- fila brasileiro,
- mastín napolitano,
- pit bull,

- artzakur kanariarra,
- rottweilerra,
- staffordshire txakurra, eta
- tosa japoniarra.

**Bigarrena.-** Euskal Autonomia Erkidegoak erantzukizun zibileko aseguruaren gutxieneko zenbatekoa ezarri arte, ordenantza honen 9. artikuluko 4. idatz-zatian xedatutakoaren ondoreetarako, gutxieneko zenbatekoak hauek izango dira:

a) Arriskugarritzat jotzen diren animaliak: .... 120.000 euro.

**XEDAPEN INDARGABETZAILEAK**

**Lehenengoa.-** Indargabeturik dago Txakurren Jabetza eta Zirkulazioari buruzko Udal Ordenantza.

**Bigarrena.-** Indargabeturik daude ordenantza honekin bat ez datozen udal ordenantza, araudi eta bando guztiak.

**AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

**GALTZEAGATIK ERANTZUKIZUNA:**

Animalia galtzen den lehendabiziko bi alditan, bidezko salaketak 48 orduren epean eginez gero, Udalaren kontura izango da animalia jasotzearen kostua; hirugarrenean, ordea, jabearen kontura.

- de presa canario,
- rottweiler,
- staffordshire y
- tosa japonés.

**Segunda.-** A los efectos previstos en el apartado 4 del Artículo 9 de la Ordenanza, y en tanto la Comunidad Autónoma del País Vasco no establezca la cuantía mínima del seguro de responsabilidad civil, ésta queda establecida de la siguiente manera:

a) Animales potencialmente peligrosos: ............ 120.000,- euros.

**DISPOSICIONES DEROGATORIAS**

**Primero.-** Se deroga la vigente Ordenanza Municipal sobre Tenencia y Protección de animales.

**Segunda.-** Quedan derogadas cuantas Ordenanzas, Reglamentos o Bandos municipales se opongan a la presente.

**DISPOSICIÓN FINAL**

La presente Ordenanza entrará en vigor al día siguiente de su íntegra publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**RESPONSABILIDAD POR PÉRDIDA:**

Las dos primeras veces que ocurriera la pérdida del animal, si se denuncia la misma en el plazo de 48 horas, el Ayuntamiento se hará cargo del coste del servicio de recogida siendo la tercera a cargo del dueño de animal.